

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: ekainak 27

# YAYOI KUSAMA

## 1945ETIK GAURDAINO

Antolatzailea

**M+**  
uresHKowloon  
西九文化區

Babeslea

 Iberdrola

Guggenheim Bilbao Museoak atek irekitzen dizkie Yayoi Kusamak beti ezaugarri izan dituen berrikuntzari, sormenari eta askatasunari, autore japoniarrak landutako gai adierazgarriak, besteak beste natura eta bizitzaren indarra, biltzen dituen atzera begirako honetan.

Artista berezi hau munduko ospetsuenetako irrikatuenetako bat da, eta XX. mendeko gatazka belikoez, eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozialek eta etengabe aldatuz doan eszena artistikoak eragindako asaldurarekin batera garatu da bere ibilbidea.


Bere indar sortzaileak, hasiera batean apaldua zenak Japoniako garaiko gizarte kontserbadorearen eraginez, New Yorken aurkitu zuen eszenatoki ezin hobea bere talentu guztia erakusteko, berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran. Hurrengo hamarkadetan pasio hori bera praktika artistiko berrietan —besteak beste performancean, ensanblajeen eta instalazio-artean— egindako sarraldi aitzindariekin konbinatu zuen Kusamak, eta horrek ahalbidetu zion Pop artea, minimalismoa eta postminimalismoa jorratzea. Apustu arriskutsua bere garaian, baina gaur egun erreferente bihurtua.

Bere instalazioak —non metaketek edo motibo errepikatuek espazioak eta objektuak eraldatzen dituzten—, bere fantasiazko gelak —ispiluz josiak ikuslearen esperientzia infinituraino biderkatzeko— eta pertsonaia publiko gisa duen proiektzio nabarmena bere kezkek, obsesioak eta beldurrak erakutsi nahian lurralde berriak esploratzeko irrikaz dagoen egile baten adierazpen ezin bereziagoak dira.

Iberdrolarentzat oso pozgarria da Hong Kongeko M+ museoarekin, hau da, Asian ikusizko kultura garaikideari eskainitako lehen museoaren lankidetzat hau bultzatzea, 200 pintura, marrazki, eskultura, instalazio eta artxibo-dokumentuz osatua. Ziur nago Guggenheim Bilbao Museoaren aurtengo egitarau artistikoan ikusmin ikaragarria piztu duen erakusketa honek bisitariak harengandik espero duten guztia beteko duela.

Urtez urte, erakusketaz erakusketa, Iberdrolak berretsi egiten du bere aliantza Guggenheim Bilbao Museoarekin, punta-puntako erakunde honekin batera hiri honek, berrikuntzan eta garapen industrialean bezala, artean ere munduko erreferente izaten jarrai dezan.

Ignacio S. Galán  
Iberdrolaren Presidentea



*In this chaotic world  
I would use all the power of art  
fully to express the desire for peace  
and the magnificence of humanity  
Hearts burning with flame-red love,  
eternal and inexhaustible  
Let us pray for love together*

**Yayoi Kusama**

June 22, 2023

## *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino*

- Datak: 2023ko ekainaren 27tik urriaren 8ra
  - Kuradoreak: Doryun Chong eta Mika Yoshitake, Lucía Agirrerekin lankidetzan
  - Babeslea: Iberdrola
  - Antolatzailea: M+, Hong Kong, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan
- 
- Yayoi Kusamaren obra bere sormen-esplorazioek gidatu dituzten gai eta galdera nagusien inguruan egituratzen da: Infinitua, Metaketa, Konektibitate erradikala, Alderdi biokosmikoa, Heriotza eta Bizitzaren energia.
  - Erakusketak biltzen dituen pintura, marrazki, eskultura, instalazio eta bere happening eta performanceen artxiboko materialen bitartez aditzera ematen da Kusamak nola heltzen dien bere jardun artistikoa bultzatzen duten galdera existentzialei.
  - 1960ko hamarkadaren bukaerako giro kontrakulturalean aitzindari, Kusamak arraza eta generoagatiko diskriminazioak salatu, gerra eta militarismoa kritikatu, eta hedabideen atentzioa erakartzen du bere happening publikoekin.
  - Kusamak naturarekiko duen interesa mistikoa eta literala da aldi berean. Horren erakusgarri dira bere kalabazak, artistak espiritu begetal onberatzat dituen, baita bere arimaren islatzat ere, nahiz eta aldi berean naturarekin zuzenean identifikatzen diren.
  - Berriki sortu duen *Nire betiereko arima* (2009-2021) saileko obra alai eta koloretsuek Kusamaren asmo eta konpromiso batean sakontzen dute: bere sufrimendua arte bihurtzea "gizateria osoa sendatzeko".

Guggenheim Bilbao Museoa *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino* aurkezten du, arte garaikidean eragin handiko figura eta XXI. mendeko ikono kultural bati eskainitako atzera begirako erakusketa handi bat. Erakusketak, Iberdrolak babestuak, Yayoi Kusamaren (1929, Japonia) unibertso obsesibo, berezi eta abangoardistan murgilduko du bisitaria, garatuz eta eboluzionatuz joan dena zazpi hamarkadatan zehar aparteko ibilbide artistiko bat osatzeraino.

Bigarren Mundu Gerran nerabe bat zela egin zituen aurreneko marrazkietatik azkenaldiko bere obra murgiltzaileetaraino, atzera begirako honek berrehun bat pintura, eskultura, performance, mugimendudun irudi, dimentsio handiko instalazio eta artxiboko materiala biltzen ditu.

Irizpide kronologiko eta tematikoen arabera antolatua, Kusamaren obra bere bizitzan zehar egin dituen sormen-esplorazioek gidatutako gai eta galdera nagusien inguruan erakusten da: Infinitua, Metaketa, Konektibitate erradikala, Alderdi biokosmikoa, Heriotza eta Bizitzaren energia. Gainera, artista honi bizitza egokitu zaizkion errealitate politiko eta sozial desberdinetan kokatzen dira bere obrak.

## ERAKUSKETAKO IBILBIDEA

### Autorretratu

Kusamaren obra autoafirmazioan eta autoerreferentzian oinarritzen da. Horregatik, erakusketak autorretratuaren generoari eskainitako espazio bat du, garrantzizko praktika bat izan baita bere ibilbide osoan zehar, artistaren eta erakusketaren sarrera gisa balio izateaz gainera.

Ibilbidea *Autorretratu*arekin (*Self-Portrait*, 1950) hasten da; koadro ilun bat, haragi-arrosa koloreko ekilore bat irudikatzen duena giza aho baten gainean flotatzen. Jarraian erakusten diren obrak honakoak dira: 1970eko hamarkadako collage surrealista, 1990eko hamarkadako grabatu bat, eta XXI. mendeko mihiseak, kolore biziko pintura akrilikoarekin eginak. Amaitzeko, *Autorretratu* (*Portrait*, 2015) dago ikusgai; collage moduan egindako konposizio bat, artistaren ezaugarri diren tantodun patroiak eta behin eta berriro ere erabili ohi dituen sareak eta tentakulu-formak konbinatzen dituena.

### Infinitua

Yayoi Kusamak New Yorken egin zuen aurreneko erakusketa indibiduala Brata Gallery-n jarri zen ikusgai 1959an. Tamaina handiko bost pintura aurkeztu zituen bertan. *Infinitu-sareak* (*Infinity Nets*) izeneko koadro haietan zuriz margotutako arku txiki batzuek hondo beltz baten gainazal osoa estaltzen zuten. Praktika hura berritasun bat zen New Yorkeko artearen munduko publikoarentzat; hala ere, Europako giro abangoardistetan nabarmendu zen bereziki. *Titulurik gabea* (*Infinitu-sare margolan baten ebakina*) [*Untitled (Off Cut of Infinity Net Painting)*, 1960], 1961ean New Yorkeko Stephen Radich Gallery-n bakarkako lehen erakusketarako sortu zuen Infinity Net koadroaren zati bat da.

Hasiera batean 1957an Japoniatik Estatu Batuetara ozeano Barearen gainetik hegazkinez egin zuen bidaiari ikusitakoagatik inspiratuak –horren adibide *Itsasoa* (*The Sea*, 1959)–, obra hauek infinitua esploratzen dute. Horretarako, artistak hedadura galaktikoak iradokitzen dituzten sareak eta puntuak erabiltzen ditu, izarra, planetak eta Lurra bera –“tanto bat milioi bat izarren artean” – irudikatzen dituzten tantoekin.

Hala, infinituaren eta ezerezaren dualtasun hori da, hain zuzen, Kusamak sareez eta tantoez osatutako bilbe bereizgarriaren oinarria, eta elkarrekikotasuna duten osagaitzat hartzen ditu: tantoak espazio negatiboak dira sarearen barruan, eta alderantziz. 1990eko eta 2000ko hamarkadetako *Infinitu-sareek* erlazioak ezartzen dituzte artista inspiratzen duten naturako indarrek, eta hodei uhindu edo izar-eremu amaigabeen itxurarekin.

Bestetik, *Transmigrazioa* (*Transmigration*, 2011) lanak, kolore biziko lau panelez osatuak, bizi-ziklo etengabe baten Kusamaren ikuspena aditzera ematen du, naturaren eta ozeanoaren berpizkundearen bitartez, bere hasierako sare-pinturetan bezala.

### Metaketa

Kusamaren artean, metaketaren eta errepikapenaren ideia, joera obsesibo bat izatetik harago, bere ikuspegi sortzailearen hedapen logikotzat har daiteke, eta marrazki sail batean –bere estudioko zoruan– nahiz bere obra artistikoaren corpus osoan aplikatzen du.

*Letra-metaketa* (*Accumulation of Letters*, 1961) collagea artistak metaketen inguruan sortutako obra goiztiarrenetako bat da, erakusketa baterako gonbidapen-txartel inprimatuetatik hartutako bere izenaren ebakinekin egina.

Urtebete geroago, bulkada horrek gainezka egiten du eta hiru dimentsiodun bihurtzen da. Artistak oihalezko ehunka betegarriekin estaltzen ditu etxeko objektuak eta altzariak, arropak, oinetakoak, maletak eta beste hainbat elementu. Emaizta hauxe da: objektu misteriotsuen sail bat, besteak beste *Titulurik gabea* (*Aulkia*) [*Untitled (Chair)*, 1963], asoziazio organiko eta erotiko konplexuak eta ezohikoak erakusten dituen.

Lan izugarri handia eskatzeaz gain, metodo honek mugak ezartzen dizkio Kusamak hazkundeari buruz duen ikuspegiari. Beraz, obretan ispiluak gehitzeari ekingo dio artistak bere lana birtualki biderkatuta erakusteko.

Gutxika, forma leun horiek biderkatzeko nahi konpultsiboak bultzatuta, 1965aren hasieran, Kusamak bere isla-gela amaigabeen bitartez hedatzen du bere ikuspegia, baita oihal zilarreztatu edo estanpatuetan ere 1970eko eta 1980ko hamarkadetan; horren erakusgarri, *Esku-metaketa* (*Accumulation of Hands*, 1980), non sofa bat eta aulki batzuk ehunka eskularru zilarreztatuz estalita aurkezten dituen.

### **Konektibitate erradikala**

1960ko hamarkadaren amaieran, Yayoi Kusamak materialtasunetik urruntzen den praktika artistiko bat garatzen du, publikoaren partehartzean eta performancean oinarritua. Estatu Batuetan immigrante bat zenez, jarrera inkonformista eta zeharo probokatzailea hartzen du, bere instalazio eta multimedia artearen bitartez giza eskubideen alde agertuz, arraza eta generoagatiko diskriminazioak salatuz, Estatu Batuetako politika parodiatuz eta kritikatzuz, eta Vietnamgo gerraren aurka protesta eginez.

Performance horietan erakusten zituen biluziengatik batez ere, bere ekintzek berehala erakarri zuten prentsaren arreta, zeinak era desberdinetan ikusten zituen: kontrakulturaren adierazpidetzat, edo publizitatea egiteko gustu txarreko trikimailutzat. Praktika horretan, gaur egun, estrategia artistiko zabalago baten muina ikusten dugu, "konektibitate erradikala" izena har zezakeena, koherentea Kusamak bere bizitza osoan zehar hedabideekin mantendu izan duen harremanarekin.

Aldi horretako bere sortze-lanetan honakoak sartzen dira: moda-diseinua, argizko ikuskizunak eta audiobisualak, manifestazio politikoak, instalazioak eta zinema hedatua. Lan horietan guztietan gorputzen pintaketa-performanceez baliatzen da, non artistak tanto margotuz estaltzen duen partehartzaile biluzien larruazala. Kusamak "auto-obliterazioa" deitzen dio ekintza horri; "ni"-a ezereztatuz gizabanakoak gizarteak ezartzen dizkion mugetatik askatzea aditzera ematen duen kontzeptua, nagusi diren emakumezko modeloak barnean direla. Horren erakusgarri dugu *Auto-obliterazioa* (*Self-Obliteration*, 1966-74) instalazioa: kolore biziko pinturarekin estalitako objektu-sorta bat, besteak beste sei maniki, aulkiak eta jangelako mahai bat, eguneroko elementuak erakusten dituen.

Hurrengo hamarkadan introspektiboa bilakatzen da Kusamaren praktika, nahiz eta 1975az geroztik berriro agertuko den auto-obliterazioa bere lanaren gai nagusi gisa.

### Alderdi biokosmikoa

Yayoi Kusama landare-haztegi batez inguratuta hazten da, familiak duen finkan eta negozioan, eta umetatik sentitzen du lotura estu bat bizitza organikoarekin. Plantazio “amaigabe” horien eta Kusamaren errepikapenerako joeraren arteko lotura bisualaz gain, landareen anatomia eta haien bizitza- eta heriotza-zikloak behatzen ditu artistak; hori *Titulurik gabea (Loreen zirriborroak)* [*Untitled (Flower Sketches)*, ca.1945] obran antzematen da, gerra-aldietako bere marrazki-koadernokoa.

Obra batzuetan, esaterako *Kimua (The Bud, 1951)* pinturan, jutezko hazi-poltsak erabiltzen ditu mihiseen orde; horrek bere baliabideen joritasuna ematen digu aditzera, mihisea nekez lor zitekeen garai batean. Bestetik, naturaren indarra transmititzen du materialen eta edukiaren bitartez.

“Biokosmiko” edo “natura kosmiko” terminoak artistak “kosmosari” buruz duen kontzeptu mugagabea adierazi nahi du, baita bizitza organikoaren bere nozio berezia ere. Lente antzeko bat da, nondik begiratu Kusamaren filosofia eta lan artistiko guztia.

1960ko hamarkadaren bukaeran, Yayoi Kusamak lehen aldiz esplikatzen dituen bere tantoak, eta zeruko gorputzekin edo sinbolo kosmikoekin konparatzen dituen bere asmoa hauxe da, zerua eta lurra, makroskopikoa eta mikroskopikoa konektatzea, bizitzaren beraren “misterioa agerian uzteko” helburuz.

Hala ere, Kusamak natura kosmikora egindako hurbilketa hori, mistikoa ez ezik, intimoa eta literala da ere. Horren adibide ditugu kalabazak, 1980ko hamarkadaren hasieran agertzen direnak bere lexiko bisualean, eta berehalako identifikazio bat eskaintzen dutenak naturarekin. Kalabazek artistaren animismoaren fede ematen dute – “espiritua” gizaki guztiok dugun energia bat delako sinesmena– eta landare-espirtu onbera antzeko bat balira bezala ikusten ditu, baita bere arimaren beraren islatzat ere.

Kusamak naturarekiko duen jarreraren beste erakusgarri bat 1980ko eta 1990eko hamarkadetako bere eskultura eta pintura biomorfoak dira, adibidez *Sexu-obsesioa (Sex Obsession, 1992)*. Hala, haien forma sigi-sagatsuek sustraiak eta tentakuluak iradokitzen dituzte halako erdibide batean, munduaren alienazioaren eta batek kosmosa bereganatu izanaren sentsazio hedakorren artean.

### Heriotza

Landareen bizitza iragankorraz inguratutako hartzaroak eraginda beharbada, eta nerabezaroan gerrako eta gerraosteko bizipenak markatuta zalantzarik gabe, Kusamaren obrak etengabe aztertzen du bizitzaren eta heriotzaren arteko atalasea, dagoeneko presente dagoen gaia loreen bere apunte eta koadro goiztiarretan. Horren adibide dugu *Arto-orri hilak (Dead Leaves of Corn, 1945)* pintura.

1970eko hamarkadaren erdialdera, Kusamak bere bizitzan garrantzi handia izan zuten bi pertsonaren heriotzari egin behar izan zion aurre: Kamon bere aitarena, zeinarekin harreman konplikatu izan zuen, eta Joseph Cornell artista iparramerikarrarena, Kusamaren lagun mina New Yorken. Artistak berak dioenez, inoiz ere ez zuen orduan bezain depresio sakonik eta hiltzeko hainbesteko gogorik izan.

Garai hartan artistak sortutako eskultura bigunak, esaterako *Nerbio baten heriotza* (*Death of a Nerve*, 1976), bizitzaren eta heriotzaren bere sinbolo propioak dira. Kusamak adierazten duen ikuspegiaren arabera, heriotza ez da azken helmuga, bizitzaren beste fase bat baizik, forma berri bati bidea emateko gai dena, haragitzaren ekialdeko sinesmenarekin bat etorritik.

### **Bizitzaren energia**

1988 aldera, artistaren arteak eta psikeak aldaketa bat izan zuten. Kusamak, beti bezala, Tokioko bere estudioan lanean nekazekin jarraitzen zuten bitartean, bere ibilbidea hedatzen hasi zen azkenean. Bere obra erakusteko aukerak biderkatu egin ziren urte hartan, eta argitaratuak zituen nobelek harrera ona izan zuten literaturaren zirkulu abangoardistetan.

Urte hartatik aurrera, bizitzaren energia eta arteak sendatzeko duen ahalmena izango dira bere obraren funtsezko gaiak. Hala, Kusamak artearen arloan duen zeregina sufrimendu sendagarritzat hartzen du, beste pertsona batzuen eta bere buruaren onerako. 1999an dioenez: “Gizateria osoa sendatzeko sortzen dut artea” eta bere obrak, milurteko berrian, zabaldu egiten du mezu hori.

Kusamak *Nire betiereko arima* (*My Eternal Soul*, 2009–21) izeneko pintura-sail berri bati ekin zion lauogei urte bete zituenean. 900 pintura-lan alai eta koloretsu baino gehiago barne hartzen ditu sailak eta deigarriak dira oso horietan margotutako motiboak, kolore-paleta eta mihise karratuak, ordura arte oso gutxitan erabili izandakoak. Azken bi urteotan, COVID-aren pandemiak eragindako oztopoak gorabehera, Kusamak margotzen jarraitu du, eskala txikiagoko euskarrietan bada ere. Egunero egiten dut otoitz maitasunaren alde (*Every Day I Pray for Love*) izenburua du lantzen ari den azken sail horrek, eta bertako lanek betiko ildotik jarraitzen dute: bizitzaren eta maitasunaren gorazarreak dira, baina, era berean, heriotzaren iluntasunari eta suizidio-asmoari egiten diete aurre, artistak urte askotan egin izan duen bezala. Pandemia garaian gizateriak jasandako hondamendia dela eta, Kusamaren azken pinturak oihartzun are indartsuagoa lortzen dute.

Artea beti izan da biziraupen kontu bat Kusamarentzat, eta orain, bere bizitzaren euskarri da gainera: “O, denbora. Geldi zaitetz une batez oraindik. Are eta lan gehiago daukat egiteko. Hainbeste dira adierazi nahi ditudan gauzak”.

Erakusketarekin lotuta, *Infinituaren isla-gela – Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz haraindik igorria* (*Infinity Mirrored Room – A Wish for Human Happiness Calling from Beyond the Universe*, 2020) ere jarri du ikusgai Museoak. Ispiludun gela hauetan, sakontasun eta isla amaigabeen efektuekiko artistaren etengabeko obsesioak argizko egiturak sortzen ditu, eta ezinezkoa, alderdi magikoa, galaktikoa, beste inon nekez aurkitu ahal izango dena gogorarazten digute beren efektuek. Instalazio hau, Japonian, Yayoi Kusamaren Museoan bakarrik jarri izan da aurretik ikusgai. Bertan, ikuspen mistiko bihurtzen ditu artistak bere haluzinazio kezkarriak, unibertso infinitu bateko izar-hautsetan murgilduta diruditenak.

## **DIDAKTIKA**



Didaktika proiektuaren baitan, Museoak hezkuntza-guneak diseinatu eta jarduerak antolatzen ditu erakusketen osagarri gisa, artelanak balioesten eta ulertzen laguntzeko.

Erakusketa honen Didaktika guneak Yayoi Kusamaren ibilbidearen xehetasun handiko kronologia bat hartzen du barnean, Museoaren webgunekeo *Bazenekien...?* atalean.

### **Jarduerak**

Inaugurazioko hitzaldia (ekainak 22)

Erakusketaren aurkezpena eta solasaldia bere komisario Doryun Chong, Mika Yoshitake eta Lucía Agirrerren artean.

Hausnarketa partekatuak \*

Museoko profesionalek erakusketaren ikuspegi eta interpretazio desberdinak eskainiko dituzte:

- Arte-arduradunen ikuspegia (uztailak 12): Lucía Agirre, arte-arduraduna
- Funtsezko kontzeptuak (uztailak 19): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzailea.

\*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Hazi ezazu zure kalabaza (eguneroko jarduera uztailan eta abuztuan)

Kalabazak dira Kusamaren motibo errepikatuenetako bat, zoriontasunaren eta naturarekiko liluraren sinboloa. Museoko bisitari gazteenek ontzi bat jasoko dute kalabaza-haziekin eta, behin etxera iritsita, ureztatu eta ernarazi ahal izango dute kalabaza. Ondoren, loreontzi batera aldatu ahal izango dute.

Kusama-Infinity proiektzioa (irailak 26)

Heather Lenz zuzendari duen *Kusama-Infinity* dokumentalaren proiektzioa. 2018an estreinatutako film honek nazioartean artista ospetsu bihurtzeko Kusamaren erabakitasun irmoa aztertzen du.

### **KATALOGOIA**

Erakusketarekin batera doan katalogoak Kusamaren obra-sorta zabal bat biltzen du, baita Mika Yoshitake, Doryun Chong eta Isabella Tam adituen saiakerak ere, artistaren ekoizpena zeharkatzen duten gai eta galdera nagusiak nabarmentzen dituztenak. Liburuak kronologia zabal bat ere biltzen du, eta bertan ikus daiteke artistak sorkuntzaren arloan egindako ibilbide luzea eskutik doala bizi izan dituen garai desberdinetako gertakariekin.

### **Azaleko irudia:**

Yayoi Kusamaren erretratua (xehetasuna)

Eskaintza: Ota Fine Arts, Victoria Miro eta David Zwirner

© YAYOI KUSAMA

Argazkia: Yusuke Miyazaki

**Informazio gehiago:**

Guggenheim Bilbao Museoa  
Marketina eta Komunikazioa saila.  
Tel: +34 944 359 008  
media@guggenheim-bilbao.eus  
[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Prentsak erabiltzeko irudiak  
***Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino***  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsako online irudien zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa-eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.eus](http://prensa.guggenheim-bilbao.eus)) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Yayoi Kusama: 1945etik* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2023ko ekainaren 27tik urriaren 8ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, *copyrighta* eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoen bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde zuzenetik obraren jabearen eta *copyrighten* titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan: [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

**Yayoi Kusama**


*Erretratua (Portrait)*, 2015

Akrilikoak mihise gainean

145,5 × 112 cm

Collection of Amoli Foundation Ltd.

© YAYOI KUSAMA


**Yayoi Kusama**


*Transmigrazioa (Transmigration)*, 2011

Akrilikoak mihise gainean

194 × 521,2 cm guztira

Collection of Ota Fine Arts

© YAYOI KUSAMA


**Yayoi Kusama**

*Letra-metaketa (Accumulation of Letters)*, 1961

Tinta eta paper inprimatu collagea paper gainean

62,5 × 74,3 cm

Collection of Ota Fine Arts

© YAYOI KUSAMA


**Yayoi Kusama**

*Titulurik gabea (Aulkia) [Untitled (Chair)]*, 1963

Betegarridun oihal josia, zura eta pintura

81 × 93 × 92 cm

Artistaren bilduma

© YAYOI KUSAMA


**Yayoi Kusama**


*Birsorkuntzaren unea (The Moment of Regeneration)*, 2004

Oihal josia, uretano aparra, akrilikoak eta zura, 54 atal

54 pieza, neurri aldakorrak

Collection of K11

© YAYOI KUSAMA


**Yayoi Kusama**

*Auto-obliterazioa (Self-Obliteration)*, 1966–1974

Olio-pintura maniki, mahai, aulki, ileorde, zorro, katilu, plater, pitxer, hautsontzi, plastikozko landare, plastikozko lore eta plastikozko fruta gainean

Neurri aldakorrak

M+, Hong Kong

© YAYOI KUSAMA



**Yayoi Kusama**

*Titulurik gabea (Soinekoa) [Untitled (Dress)]*, ca. 1968

Soinekoa, betegarridun oihal josia eta pintura

73 × 90 × 12 cm

Artistaren bilduma

© YAYOI KUSAMA



**Yayoi Kusama**

*Lore gorria (Red Flower)*, 1980

Kotoi josia, eskularruak eta oihala

467 × 106 × 52 cm

Collection of Ota Fine Arts

© YAYOI KUSAMA



**Yayoi Kusama**

*Kalabazak (Pumpkins)*, 1998–2000

Baliabide anitzak

6 pieza, neurri aldakorrak

Artistaren bilduma

© YAYOI KUSAMA



**Yayoi Kusama**

*Hodeiak (Clouds)*, 2019

Altzairu herdoilgaitz grabatua, neurri aldakorrak

Eskaintza: Ota Fine Arts eta David Zwirner

© YAYOI KUSAMA



### Yayoi Kusama

*Bomba atomikoa (Atomic Bomb)*, 1954

Gouachea, tinta eta pastela paper gainean

25 × 17,6 cm

Eskaintza: Matsumotoko Arte Garaikideko Udal Museoa

© YAYOI KUSAMA



### Yayoi Kusama

*Nerbio baten heriotza (Death of a Nerve)*, 1976

Baliabide anitzak eta betegarridun oihala

diametroa: 15 cm, luzera: 100 m

Lito and Kim Camacho Collection

© YAYOI KUSAMA



### Yayoi Kusama

*Zeruan hegan zebiltzan arimak (Souls That Flew in the Sky)*, 2016

Akrilikoa mihise gainean

194 × 194 cm

Artistaren bilduma

Eskaintza: Ota Fine Arts, Victoria Miro eta David Zwirner

© YAYOI KUSAMA



### Yayoi Kusama


*Infinituaren isla-gela – Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz harainditik igorria (Infinity Mirrored Room – A Wish for Human Happiness Calling from Beyond the Universe)*, 2020

Ispilu-beira, zura, led argiztatze-sistema, metala eta taula akrilikoa

293,7 × 417 × 417 cm

©YAYOI KUSAMA

Eskaintza: Ota Fine Arts



### Yayoi Kusamaren erretratua

Eskaintza: Ota Fine Arts, Victoria Miro eta David Zwirner

© YAYOI KUSAMA

Argazkia: Yusuke Miyazaki

